

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Hizkuntzak ikasteko dirulaguntza emakidaren oinarri arautzaileen aldaketaren behin betiko onespena

2020ko azaroaren 18ko 131. zenbakidun ALHAOn argitaratu zen hasierako onespena, eta erreferenziako espedienteari alegaziorik jarri ez zaionez, guztia argitaratuko da, indarrean jarri dadin.

HIZKUNTZAK IKASTEKO DIRULAGUNTZA EMAKIDAREN OINARRIAK

1. artikulua: oinarriak

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren ustez, hizkuntzak ikastea oso garrantzitsua da pertsonen prestakuntzan, bai lanerako, bai arlo akademikorako eta pertsonalerako ere, eta, beraz, hizkuntzak ikastea sustatu beharreko helburua da.

Hori gauzatzeko modu bat, dirulaguntzak eskaintzea da udalerrian erroldatuta dauden pertsonen hainbat hizkuntza ikastea errazteko eta beraien maila akademikoan eta pertsonalean kultura osagarri bat gehitzeko.

Kultura eta kultur jarduerak antolatzea eta sustatzea Euskadiko toki erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1. 20) artikuluan zerrendatutako udal eskumenen barne dago.

2. artikulua: helburua eta xedea

Deialdiaren xedea da Arratzua-Ubarrundiako udalerrian erroldatuta dauden eta hizkuntzak ikasten ari diren pertsonen zuzendutako dirulaguntza emakida arautzea.

3. artikulua: araubide juridikoa

1. Deialdi honetako dirulaguntzak arautzeko esparrua, oinarri hauek eta honako araudiak osatzen dute:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa.
 - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenarena.
 - 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra.
 - 887/2016 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, dirulaguntzen lege orokorraren araudia onartzen duena.
 - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
 - Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea.
 - Aurrekontua betearazteko oinarriak.
2. Dirulaguntzak norgehiagoka bidezko araubidean emango dira, deialdi ireki bidez, aurrekontu kreditua agortu arte. Dirulaguntzak printzipio hauen arabera emango dira:
- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.

- Ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
- Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

3. Dirulaguntza eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak oinarri hauek, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantza orokorra, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzen orokorra, eta horrelako dirulaguntzei aplikatu beharreko arau guztiak, bai zuzenekoak, bai subsidiarioak, ezagutzen eta onartzen dituela.

4. artikulua: aurrekontu zuzkidura

Arratzua-Ubarrundiako Udalak ekitaldi bakoitzean aurkeztutako eskaerei erantzuteko nahikoa den kopuru bat xedatuko du dagokion aurrekontu partidan. Ezingo da dirulaguntzarik eman aurrekontu esleipenik egin gabe.

5. artikulua: jasotzaileak

16 urtetik gorako pertsonak, beraien ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza bat ikasi nahi dutenak. Adin hori beteta eduki behar dute dirulaguntza jasoko duen ikastaroa hastean.

6. artikulua: eskatzaileek bete beharreko betekizunak

Eskatzaileek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

Arratzua-Ubarrundian erroldatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzinasunarekin. Antzinasunak eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean egon beharko du beteta.

Deialdian ezarritako ikasturtean hizkuntza eskoletan edo akademietan matrikulatuta egon beharko dira.

Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga betebeharren ordainketa egunean edukitzea deialdi hau behin betiko ebatzi arte. Horretarako, zuzenbide publikoko diru sarreraren ondoriozko edozein zor hartuko da kontuan, salbu eta zorrak edo zehapenak geroratuta edo zatikatuta badaude edo gauzatzea etenda badago. Betebehar hori tutoreek ere izango dute, eskatzaileak adingabeak direnean edo legezko gaitasunik ez dutenean.

7. artikulua: dirulaguntza jasoko duten ikasketak

Dirulaguntza jaso ahal izango dute edozein hizkuntza ikasteko matrikula gastuek, baita atzerritarrentzako gaztelaniako ikastaroetarako gastuek ere.

Honako gastu hauek ez dira sartzen: joan-etorrien gastuak eta barnetegien kasuan, mantenu gastuak eta ostatu gastuak.

Pertsona bakoitzak egiten dituen ikastaro eta barnetegi adina beka eska ditzake, baina ikastaro bakoitza behin bakarrik lagunduko da diruz.

8. artikulua: eskariak

Eskariak I. eranskineko eredu ofizialarekin bat etorriko dira, eta idazkera larri argi eta irakurgarri bete beharko dira. Eskariak tutoreek sinatuko dituzte eskatzaileak adingabeak direnean edo legezko gaitasunik ez dutenean.

Aurkezteko epea: deialdian jasotako eguna.

Aurkezteko modua:

Aurrez aurre udal bulegoetan, 08:00etatik 14:00etara.

Modu telematikoan, webgune honetako egoitza elektronikoan: www.artzua-ubarrundia.eus (martxan jartzen denean).

Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Ikastaroa egindako zentroko ziurtagiria, honakoak adierazten dituena: hasitako eta bukatutako ikastaroa, ikastaroaren ordu guztiak eta ikasleak aprobetxatutako orduak (gutxienez, ehuneko 80ko asistentzia), ikastaroaren hasiera eta bukaera egunak eta ikastaroaren kostua. Barnetegiak izanez gero, hezkuntza, otordu eta ostatu gastuak zein bere aldetik zehaztuko dira.

Salbuespen moduan eta osoko bilkurak baloratu ondoren, osasun alarma egoera egonez gero, ehuneko 80 baino gutxiagoko asistentzia onartu ahal izango da.

Matrikularen fotokopia eta hura ordaindu izanaren egiaztagiria.

Diru sarrera egin nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, adieraziz zein den titularra baldin eta ez bada dirulaguntzaren onuraduna.

Eskaera aurkeztean, eskatzaile guztiek hauxe onartuko dute:

Esleriaren datuak udal erroldako datuekin gurutzatzea, jakiteko ea eskatzaileak edo haien tutoreak Arratzua-Ubarrundian erroldatuta dauden edo ez.

Datuak udaleko diru bilketa zerbitzuekin gurutzatzea, jakiteko ea eskatzaileek edo haien tutoreek zerga betebeharren ordainketak egunean dituzten edo ez.

9. artikulua: eskariak aztertzea eta ebaztea

Aurkeztutako dokumentazioa ez bada nahikoa, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean dokumentazioa osatzeko. Horrez gain, jakinaraziko zaio epe hori igarotakoan dokumentaziorik aurkeztu ez badu, aurretiaz ebazpena eman ondoren, bere eskaria ezetsiko dela.

Dirulaguntzak udalbatzak emango ditu, osoko bilkuran jorratu beharreko gaien informazio batzordeak proposatuta.

10. artikulua: dirulaguntzen zenbatekoa

Honako dirulaguntzak ezarri dira:

Matrikularen prezioaren ehuneko 100era arteko zenbatekoa, euskara ikasteko; gehienez ere 200 euro.

Matrikularen prezioaren ehuneko 75era arteko zenbatekoa, beste hizkuntza batzuk ikasteko; gehienez ere 200 euro.

Gehienezko 200 euro horien muga ez da aplikatuko baldin eta egin beharreko adjudikazioak egin ondoren ez bada agortzen aurrekontu partida. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ez da gaitutuko matrikularen prezioaren ehuneko 100 euskararen kasuan, edo ehuneko 75 gainerako hizkuntzen kasuan.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztu diren eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan murriztuko da eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

11. artikulua: dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntzen emakida bateragarria izango da eskatzaileek helburu berdinerako jaso ditzaketen bestelako emakidekin. Hala ere, udalak emandako dirulaguntza beste dirulaguntza batzuekin batzean, emaitza horrek ezin izango du ikasketak gauzatzeko dituen pertsonak garatzen duen jardueraren kostua gainditu.

12. artikulua: dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, hau da, ebazpena emandakoan eta aurrekontu ekitaldia amaitu baino lehen.

13. artikulua: laguntzen kontrola eta justifikazioa

Azaroaren 17ko dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 30. artikuluko 7. atalean xedatutakoarekin bat eginez, eskola garraiorako dirulaguntzen emakida justifikatzeko, nahikoa izango da aurretiaz egiaztatzea eskatzaileak, edo hala badagokio tutoreak, deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituela.

Hala ere, onuradunak udalari jakinarazi beharko dio kontzeptu horretan bestelako dirulaguntzak edo laguntzak jaso dituela, horiek jasotzen dituen unean bertan.

Laguntzen jasotzaileei aplikatu beharreko itzulketak, zehapenak eta erantzukizunak arautzen dituen araubidea azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, eta Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak ezartzen dutena izango da.

14. artikulua: arau-hausteen eta zehapenen araubidea

Arau-hauste eta zehapen administratiboei dagokienez, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 52. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari eta udalak onartutako dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzeko ordenantzak 14. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaie, eta ordenantza horren 15. artikuluan agintzen denaren arabera zehatuko dira.

15. artikulua: legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztirako, udalak onartutako dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzeko ordenantzan xedatutakoari eta dirulaguntzen Lege Orokorri eta hori garatzen duen araudiari jarraituko zaio.

Hau guztia argitaratzen da, interesa duen guztiak honen berri izan dezan.

Dura, 2020ko abenduaren 18a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE



HIZKUNTZEN IKASKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA

IZENA ETA ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA		NAN-AIZ-IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENEA EGITEKO DATUAK			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerria	Lurraldea	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorraren zk.	

Nori egin jakinarazpena
Nola egin jakinarazpena

Interesatua
 Posta

Ordezkarria
 Elektronikoki

AZALTZEN DUT

Arratzua-Ubarrundiako Udalak onartutako hizkuntzen ikaskuntzarako laguntzen deialdiaren berri izan dudala.

..... udalerriko zentroko..... mailan nagoela matrikulatuta.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, Herritarren Udal Erroldan gutxienez urtebeteko antzintasunarekin izena emanda nagoela.

Ikasturtea hasi den egunean 16 urte edo gehiago ditudala.

Ogasunarekiko eta Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela. Adingabeen edo tutoretzapekoen kasuan, betebeharrak haur tutoreen ardurara izango da.

Eta adierazten dut:

Kontzeptu berarengatik, beste beka edo laguntzaren baten eskaera egin dudala BAI / EZ, erakundeari zuzenduta, eta laguntza jaso dudala BAI / EZ, eta, jaso izanez gero, kopurua honakoa izan dela:

ESKATZEN DUT

Kontuan izatea, aipatutako deialdiaren eabazpena egiterakoan, eta hala badagokio, diru-laguntza ematea.

ERANTSITAKO AGIRIAK

Ikastaroa egin duen zentroko ziurtagiria, honakoa adierazten duena: hasitako eta bukatutako ikastaroa, ikastaroaren ordu kopurua guztira eta ikasleak aprobetxatutako ordu kopurua (gutxienez, %80ko asistentzia), ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data eta ikastaroaren kostu osoa. Barnetegien kasuan, adierazi egin beharko dira irakaskuntza-gastuak, mantentze- eta ostatu-gastuak. Salbuespen modura, Osoko Bilkuran baloratu ondoren, osasun-alarma egoeraren ondorioz ehuneko 80tik beherako asistentzia-ehuneko onartu ahal izango da.

Matrikularen fotokopia, eta ordaindu izanaren ziurtagiria.

Diru sarrera egitea eskatzen den entitatearen izena eta kontuaren IBANa. Kontuaren titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada, bertan zehaztu behar da.

SINADURA ETA DATA:

	DATUEN BABESA
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legitimizazioa	Datuen tratamendua lege-betebeharrek eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen dute.
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da bestelako lagapenik egongo, legeak hala agintzen ez bada.
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin (Uribea kalea 12, 01520 Durana) harremanetan, arduradun gisa. Datuen kontserbazio-modua legeak agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak lantzeko.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)